



Etorkinen eskubide politikoen inguruan iritzi desberdinak politikarien aldetik

TOLOSA ▶ Lau alderdietako ordezkariak euren iritzia eman zuten herenegun; gaur, adingabeak mintzagai ▶ 2



Albite, Anxutegi, Unzurrunzaga, Gonzalez de Txabarri eta Matute, herenegun, Kultur Etxean. I. TERRADILLOS

LEITZA ▶

Ongietorri beroa eskaini dio herriak Igor Astibiari

2 urte kartzelan eman ondoren,
atzo utzi zuten aske leitzarra ▶ 7

TOLOSA ▶

Antzerki festa, gaur eta bihar, Leidorren

Hiru antzezlan
izango dira ikusgai ▶ 3

MADDI SOROA



Jai giro polita izan dute Gazteen Egunean

AMASA ▶ Gazteek ezin hobeto erantzun zioten atzokoan, euren egun handiari; gaur, egitaraua zabala adin guztiei zuzendua ▶ 4

BIHAR Zinema Etxean 2

tañguri irkin

8 DVD euskaraz

berria

+ 4,50 €

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

CAJA LABORAL EGOKARRO KULTURA

GIZARTEA ▶

Etorkinen eskubide politikoei buruzko iritzia anitzen bilketa

Alderdi politiko desberdinetako ordezkariak euren iritzia eman zuten atzokoan; gaur, lagunduta ez dauden etorkin adingabeen inguruan izango da hitzaldia

IÑIGO TERRADILLOS

SOS Arrazakeriak antolatutako *Immigrazioa eta giza eskubideak* jardunaldien baitan, etorkinak eta boto eskubidearen gaia izan zuten herenegun hizpide. Hala, Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria), Gemma Gonzalez de Txabarri (EAJ), Oskar Matute (Ezker Batua), Karmele Antxutegi (EA) eta Pello Albite (ezker abertzalea) izan ziren ordezkaten duten elkarte edota alderdi politikoen iritzia edo jarrera adierazi zutenak.

Agustin Unzurrunzagak etorkinen eskubide politikoa urrutirik dutela gogorarazi zuten, eta PSOE eta IUk egin berri duten akordioa kritikatu zuten, izan ere, «proposamen horrekin, Espainian, akordioa adosten duen lurraldeko etorkinek soilik bozkatu ahaliko dute, Norbegiarekin gertatu den bezala; guk ez dugu hori nahi, Espainiako Konstituzioa



Ezker-eskuin: Pello Albite, Karmele Antxutegi, Agustin Unzurrunzaga, Gemma Gonzalez de Txabarri eta Oskar Matute, herenegun. i. r.

aldatu beharko litzateke bertan bizi den edonork bozkatu eta bozkatu izateko eskubidea izan dezan». Karmele Antxutegik, bestalde, EAren izeanean hitz egin zuen. Berak adierazi zuenez, «eskubide berdina eduki behar dituzte pertsona guztiek eta diskriminazioak ekidin; behin hori gaindituta hitz egin ahaliko da etorkinen boto eskubideaz». Halaber, «erakundeak berak eskubide hori ukatuta, nola ez da etorkina baztertua sentitu-

delo gaineratu zuen. Bere uste-tan, «gai honetan asko aurreratu den arren, botoaren eskubidean ez da ezer egin, eta horretan nazionalitate kontzeptua aldatu eta hiritarrarena erabili beharko litzateke; ez da integrazioaz soilik hitz egin behar, baita hiritar kontzeptuaz ere».

Bestalde, Pello Albite ezker abertzalearen izenean, gairrantzitsua dela etorkinen eskubide politikoen urraketaren eta «are eta gehiago orain Euskal Herriak bizi duen bake prozesu egoeran», azaldu zuen; izan ere, «marko politiko berria eraiki dezakegun une honetan etorkinen papera oso garrantzitsua izango da; gainera, atzerritarren legeak euskaldun hiritarrak ere banandu dituela kontuan hartu behar da», gaineratu zuen Albitek.

Azkenik, bertaratu ziren herritarrei galderak egiteko aukera eman aurretik, Gemma Gonzalez de Txabarrik hitz egin zuen. «EAJ, EA eta EBK Es-

delo gaineratu zuen. Bere uste-tan, «gai honetan asko aurreratu den arren, botoaren eskubidean ez da ezer egin, eta horretan nazionalitate kontzeptua aldatu eta hiritarrarena erabili beharko litzateke; ez da integrazioaz soilik hitz egin behar, baita hiritar kontzeptuaz ere».

Azkenik, bertaratu ziren herritarrei galderak egiteko aukera eman aurretik, Gemma Gonzalez de Txabarrik hitz egin zuen. «EAJ, EA eta EBK Es-

EGITARAUA ▶

GAUR

20:00. *Lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrek. Gure adin txikikoak ere badira?* Kultur Etxean. Hizlariak: Vicens Galea i Montero (DRARI), Diego Lorente (SOS Madrid) eta Peio Aierbe (Mugak).

BIHAR

20:00. San Frantzisko ibiltokian, 11:00etan, erakusketak, bakarrizketa, umeentzako narrazioa eta idazketa libre jarduerak.

GAUR ETA BIHAR

18:30-20:30. Erakusketak Kultur Etxean: *Gertutik hitzea: hondoratze baten sekuentzia*. Juan Medina.

painiako gobernuari eskatu diogu etorkinek boto eskubidea eta botatuak izateko eskubidea izan dezaten, izan ere, oraingo legearekin desberdintasun handiak sortzen dira, eta ez du arrakastarik izan», esan zuen. «Europar batasunekoek duten eskubide bera izan beharko lukete gainerakoek; ez zaie kontuan hartzen ezer erabakitzeke, baina gizartearen zati dira», gehitu zuen.

Gaur hitzaldia, eta bihar hainbat ekitaldi izango dira jardunaldien baitan.

VICENC GALEA I MONTERO ▶ DRARI ELKARTEKO KIDEA

«Marrokiar adingabeekiko diskriminazioa ikaragarria da»

Vicenc Galea i Montero kataluniarra Drari elkarte kidea da. Gaur Diego Lorente eta Peio Aierberekin batera etorkin adingabeen inguruan hitz egingo du, 20:00etan Kultur Etxean.

Zertan egiten duzue lan Drari elkartearekin?

Adingabeen babeserako aritzen gara elkarte bezala lanean, laguntzarik ez dutenekin

edo bakarrik aurkitzen direnekin, bereziki.

Katalunian aspalditik ari zarete gaiaren inguruan lanean.

80. hamarkadatik hasi ziren zentroak martxan. Gobernutik zabaldu duten informazioa ez da inoiz garbia izan. 140 plaza inguru daude etorkin adingabeentzat zentroetan, baina oso diskriminatzaila da, bazter-

tzaila da egiten dutena, izan ere, marrokiarren kasuan, guztiak elkarrekin jartzen dituzte, bai etxeetan, bai eta kurtsuetan ere. Babesik gabeko marrokiar adingabeekiko diskriminazioa ikaragarria da.

Zein da arazoa?

Arazoa ez dira gazte adingabeak. Arazoa ez da gero eta gehiago etortzea. Arazoa berarekin nola egiten den lan da.

Tolosaren kasuan Gipuzkoako Foru Aldundia da euren arduraduna; 25 plaza ditu bertako zentroak, eta hori ez dago ongi. Pentsa, adin horretako gazte batek familiarekin bizi behar du, familia ez badu, adopzioarena dago; beste aukera, antzeko zerbaite sortzea da, eta horretarako, familiarteko giroa sortzeko 6 plazako zentroak beharko genituzke.

Zer da gaurko hitzaldian azalduko duzuna?

Gazte adingabe bat zer den definitzen saiatuko naiz, eta euren eskubideak zein diren azalduko ditut. Izan ere, jendeak jakin behar du bakarrik egoteagatik eta marrokiarra izateagatik gazte bat ez dugula desberdin tratatu behar. Euren etxeak utzi eta bakarrik etorri diren nerabeak dira. ◀

hilberria ▶

Joseba Albizuri Etxaniz
Torre



Izan zirelako, gara garelako izango dira ez agurrik, ez adiorik gero arte osaba

Albizuritar zure ilobak

oharra ▶ Hileta elizkizunak gaur izango dira, 19:30ean Azeptitiko Soreasu parrokian.

AZPEITIA, 2006ko azaroaren 10a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztienaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶



Eloi Beato zuzendariaren *Todos nacemos vascos* antzezlaneko momentuetako bat. SINADURA

Antzerkia nagusi izango da asteburuan

Babarrunaren Astearen baitan, estilo ezberdinetako hiru antzezlan ikusi ahal izango dira, gaur eta bihar, Leidorren

ESTI EZEIZA

Babarrunaren Astearen baitan, jakierekin zerikusia ez duten hainbat ekitaldi ere gauzatu dira egun hauetan. Horietako batzuk, gaur eta bihar Leidor antzokian ikusi ahal izango diren antzerki emanaldiak dira: *Nasdrovia Chejov*, *Todos nacemos vascos* eta *Hiru txerri txoak*.

GAUR

22:30etan. Vaiven konpainiaren *Nasdrovia Chejov* muntaiak antzerkietako Max sarrietako ikuskizun errebelazio onenaren izendapena lortu zuen aurreko edizioan. Idazlearen heriotzaren mendeurrena betetzen denean omenaldia egiten zaio autore errusiarrari bost ipuinen bitartez osatuta dagoen ipuin baten bitartez. Entzunaldi izeneko pasarte batetik abiatuta bost istorioak elkar gurutzatzen dira. Alberto Iglesias izan da Chejov-en obrak antzerkira egokitu dituen Fernando Bernues-ek zuzendutako antzezlan batean. Eskenatokitik, jeneralak, funtzionarioak, emakume argelak, ezkongai gazteak eta ironiaz eta samurtasunez tratatutako beste hainbat pertsonaia pasako dira umorezko pasarte desberdinetatik aurrez ikus ezin

daitekeen amaiera duen obra honetan. Izan ere, idazle errusiarraren esanetan: «umorea eta barrea lokatz ilun eta triste- enetan sortu daiteke, exijentzia koloretzatuz eta argiz beteaz».

BIHAR

17:00etan. *Hiru txerri txoak* ikuskizuna Glu glu taldeak eskaintzen duen hiru eta bederatzirentzako bitarteko haurrei zuzendutako antzezlan da. Ipuin klasikoan oinarritutako lan honek hiru pertsonai xeberren abenturak erakutsi nahi dizkiete gaur egungo umei. Adiskidetasuna nagusi den istorioa, batzuetan samurra da eta besteetan beldurgarria, umorezko abenturan gauzatu nahi izan dute, kolorea, barrea eta musika ezinbesteko lagun izango direlarik.

Xurru, Kurrin eta Korrokek, hiru txerri txoak, mundu handia eta zabala ezagutzeko asmoa dute. Hiru txerri txoek etxe bana eraiki beharko dute banoan eta bertarako bidean hurrek sorpresa, atsegin zein atsekabe ezberdinei aurre egin behar izango diete.

20:00etan. *Todos nacemos vascos* ikuskizuna Glu glu taldeak eskaintzen duen antzezlan da. Eloi Beato zuzendutako lan honetan, eritimo bizian, hainbat egoera komiko gerta-

zten dira. Eta horietan ikus daitekeenez, ez dago historiako garairik, ez eta munduko pertsonairik ere euskaldunekin loturirik ez duenik. Antzezlanaren protagonista Lola da, Jabiugoko txurrogilea. Hau, hil eta zerura joango da. Hara iristean, harri eta zur geratuko da ikustean, bera eta gainontzeko guztiak euskaldunak direla. Hori dela eta, egokitze prozesua pasa beharko du ezinbestean, bere euskalduntasuna baieztatuz. Ustekabez betetako bidaia dibertigarri honen ondoren, Lolak ezin izango du ukatu nabarmen geratu dena, eta onartu egin beharko du bera ere euskaldun jaio zela.

ZUZENKETA ▶

Herenegun, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratutako, Babarrunaren Asteko albistean akats bat zegoen. Izan ere, Mari Karmen Iradi, 2004an irabazi zuen babarrun onenaren saria, eta ez joan den urtean. 2005ean, Alberto Labaka izan zen garaila, eta 1.700 aurotan saldu zen enkantean bere babarrunaren lakaria.

MUSIKA ▶

Rock doinuak gaur eta bihar Bonberenean

Neubat eta Sharon Stonerrek kontzertua eskainiko dute gaur, 22:30etatik aurrera



Kuraia musika taldea emanaldietako batean. HITZA

E. EZEIZA

Bonberenean asteburu honetan ere musikaz gozatzeko aukera izango da. Gaur, 22:30etik aurrera Neubat eta Sharon Stoner taldeak ariko dira. Eta bihar berriz, garai berean Kuraia eta Freak Kennedys taldeek beste kontzertu bat eskainiko dute.

Neubat taldea Gasteiztik dator joan den hilabetean kaleratutako bere diska berria *Stereosaurus* aurkezteko asmoz. Hauekin batera Sharon Stoner ofatiarrak izango dira. Ondorengo hauek ere beraien azken diska *3000 bira* aurkeztuko asmoz heldu dira Bonberenean. Taldea 2001ean osatu zuten, eta aurretik ere beste talde batzuetan ibilitakoak dira. Hasiara batean beste talde batzuen bertsioak (Kyuss, Qotsa, Natas...) egiten hasi baziren ere, dagoeneko bi maketa disko bat kaleratu dituzte beraiek egindako kantuekin.

Kuraia taldea Irundik etorriko da bihar. *Piztu da piztia* diskaren aurkezpen birari Tolosan emango diote amaiera. 2005ean kaleratu zuten sei kantuz osatutako diska hau. Rock and roll talde honen kantu berriak, 2004. urtean



Gaur joko duten taldeak. HITZA

egindako geldiuenearen ostean grabatu zituzten biniloan. Hau, edizio mugatuko 10" baten argitaratu zen. Beraiekin batera ariko da Freak Kennedys taldea. Hauek zaragozarrak (Espainia) dira, eta Dead Kennedys taldearen bertsioak eskeniko dituzte.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Pisua. Leitzan pisua salgai. 2 logela, sala, sukaldia, bainugela, berogailu individuala eta bi balkoierkin. Sartzeko. 158.000euro. 943 65 25 81.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 18ko llantak eta tebuia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.
Autoa. Uelli lur orotako ibilgailua salgai, paperekin. Telefonoa: 686 79 22 34.
Motorra. Yamaha WR 450 F Enduroa. 2005 urtekoa. Matrikulatua eta seguruarekin. Extrekin, suspentsioa egina. Egoera onean. 7.500 euro. Telefonoa: 600 90 36 28 (Joxe).

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Etorkin adingabeen gainean azkenaldian piztu den alarma sozialari buruz, zein da zure iritzia? zein da egoeraren irtenbidea? zergatik sortu da? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Alkatea eta adin txikiko etorkinak

Jokin Bildarratz Tolosako Alkateak azaroaren 1eko DVN «adin txikiko etorkinek sortutako gatazka» salatzen zuen. Tolosa Bizirik ekimeneko hautetsiok adierazpen horiekiko gaitzespen eta desadostasun sakonena adierazi nahi dugu.

Alkateak dioenez «ez du diskurtso arrazistan erori nahi» baina egiazki arrazismoa barra barra dario bere diskurtsoari. Non zegoen Alkatea bertako zenbait «elementuk» arrisku handiagoko egoerak sortu zituztenean, la bankadaz zaurituak barne, Tolosako zenbait herritarren

bizitza kinka larrian jarri zuten? Edota Tolosara «droga» gazte hauek ekarri dutela sinistarazi nahi ote digu?

«Kanpokoei» errua botatzea oso erraza da. Populazioaren arlo zabaletan erraz loratzen den tentazioa da. Gure Alkatea, inmigrazioa bezalako gai korapilotsuaren inguruan diskurtso lasai, eraikitzaile eta hezitzailea egin beharrena, latsa sortzen duen populismoan murgiltzen da beste behin ere.

Edo behar bada, Aldundiko arduradunen aurrean halako erantzun sumin eta lekuz kanpoko baten bidez Gerontologikoaren itxieran, besteak beste, izandako menpekotasun tamalgarria ezkutatu nahi

du. Horiek bai sortzen dute «gatazka» gure herrian.

Hainbat herritarrek jasan behar izan duten egoeraren larriaz jakitun gara eta horregatik gure elkartasuna adierazi nahi diegu. Baina Jokin Bildarratzen eta enparauen diskurtsoak ez dakar gazte hauekiko arbuioa besterik eta arbuio hori da, hain zuzen ere, bazterketa eta marjinaltasunera zigortzen dituen.

Alkateak gogora ekartzen dituen «bitarteko material eta humanoak» ez dira nahikoak arduradun publikoak elkarbizitza eta errespetuzko giroa sortzeko gai ez badira. Eta bere hitzak irakurtzean beldur gera aipatu bitartekoak ez ote diren neurri errepre-

sibo berriak izango, huts hutsan.

Administrazioakadino oso ezberdineko gazteak «pilotu» egin ditu, besterik gabe, pertsona hauei etorkizun duina eskaintzeko baldintzarik ez duen etxe batean pilotu ere. Ez da nahikoa miseriatik ihesi datozen gazteei «arraina» ematea, «arrantzan» erakutsi behar zaie eta horretarako baliabideak jarri behar ditu administrazioak, baita udalak ere. Porlana gutxiago eta gizarazoetarako diru gehiago (Gerontologikoa, etorkinak...). Gazte hauek zeregina izan behar dute egunean zehar, eta egiten dutenaren arabera sarria jaso. Autoestima horrela areagotuko zaie, gauzak egi-

nez, ikasiz, lan eginez... beste la bazterkerian eroriko dira berriro ere.

Berriki baldintza bertsuetan iritsitako bi gazteren adibidea ekar genezake gogora, guztiotzat ezaguna dena, eta ingurune egoki baten laguntzaz bizitza bideratu eta gure jendartearen guztiz txertatuak daudela gogoratu.

Horregatik, gai delikatu hauen inguruko hausnarketa sakona eskatzen diogu Alkateari, ahal bada, hain zoritxarreko adierazpenak egin aurretik.

ANTTON IZAGIRRE,
BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN,
IBAN ORTIZ
ETA AITOR IZTUETA ▶ TOLOSA
BIZIRIKEKO HAUTETSIAK

AMASA ▶ SAN MARTIN JAIK

Gazteek ezin hobe erantzun diote bere egun handiari

Martina Sorginaren etorreraren ostean, Gazteen Eguna izan zen atzo San Martin jaien baitan; gaur ere egitarau zabala antolatu dute adin guztiei zuzenduta

ERREDAKZIOA

Eskualdeko azkenak izanagatik, Amasako herritarrek ez dute inbidiarako aitzakiarik, bertako jaiak ere indartsu hasi baitira, bere lehen egunetik. Zerura begirata udako jai giroan daudela pentsa dezaketen arren, azaroa bete-betean hartzen dute San Martin jaiak. Atzo gazteei zuzendutako eguna izan zen bereziki eta festa eta algarra goizetik hasi zuten. Batzuk oraindik oheratu gabe eta beste batzuk jeiki berri, gosaria egin zuten, Ongi Etorri tabernan, trikitilari eta dultzaineroen doinuak alaituta. Ondoren, goiza indarrak berreskuratzeke baliatu zuten.



Bazkariaren ostean, dantzan aritu ziren herriko gazteak, trikitilarien doinuekin. MADDI SOROA

EGITARAU ▶

GAUR

17:15. Pirritx eta Porrotz pailazoaren emanaldia. Ondoren, txokolate jatea.
20:00. Amasako XV. Bakailu Lehiaketa. Ondoren, bakailua eta sagardoa doan izango da nahi duenarentzat.
23:30. Dantzaldia Laiotz taldearen eskutik.

Baina festak ez zuen etenik izan. Izan ere, eguerdi partean mahai inguruan bildu ziren gazteak. Uxo-Toki elkartearen Arratsalde guztian zehar ere izan zuten zer gozatua, sokadantza eta aureskuia dantzatzuz lehenik eta trikitilarien erromeriarekin, ondoren. Eta euskaldunek guztia janez eta edanez ospatzen omen dugunez, gau partean ere afari legea egin zuten, Arantzabi jatetxean.

Egitarau bete eta zabala, beraz, gazteei zuzendutakoa. Gaur ere Amasa jai kolorez jantzik da eta Martina Sorginak bere aroa banatzen jarraituko du herritarren artean.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

Avalon
osagaiak
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 31 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
T O L O S A

ILUMINAZIOA

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

MUGAR
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
T O L O S A
Tel.: 943 67 40 74

kanikak
San Nafarroa, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ALEGIA ▶ KULTURA

Lehen eta orain, irudi zahar eta berrietan

Eduardo Arrayetek, Alegiko Argazkizaleen taldeko beste hiru lagunekin batera herriko argazkien erakusketa egin du



Eduardo Arraiet argazkizaleak gustuko du argazkilaritza, baina ez du horretan jarduten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Momentua eta garaia irudi batean hilezkortzeko saiakera omen dira argazkiak: duela 70-80 bat urteko paisaiak ere hilezkortu zituen bere garaian Alegiko German Intxausti argazkilariak. Gaur egungoak, kasu honetan, Eduardo Arrayetek egin ditu. Hurrengo astelehenara arte izango dira Alegiko Kultur Etxean ikusgai: Alegiko Argazkizaleen taldekoek eskuratutako argazkien erakusketa.

Alegiko Argazkizaleen taldeko kide den Eduardo Arrayetekin egon da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA, herriko argazki zaharrak nola jaso zituen gogoratuz, eta erakusketaren berri izateko. «Duela 5 edo 6 urte Joxe Manuel Lasa laguna eta argazkizaleak argazki zaharrak jasotzeko proposame-

na egin zidan. Gauza bera egin zuen beranduxeago Juan Mari Oiarzabal zinegotziak, eta orduan animatu nintzen». Etxez etxe joan ziren argazkiak bilduz, erakusketa bat egiteko lain lortu arte, izan ere, erakusketan 30 bat irudi zahar daude. «Denak eskaneatu nituen, gaur horretan nik bakarrik neukalako horretarako aukera, besterik gabe».

Lan honetan murgilduta Joxe Manuel Lasa, Patxi Renobales, Jon Aizpurua eta Eduardo Arrayet bera izan dira, burubelarik argazki guztiak lortzeko. «Gure helburuetako bat zera da, Alegiko argazki artxibo bat egitea argazki zaharrekin, baina, horretarako denbora eta jende gehiago behar dira. Beste helburu bat, argazkiak egiteko jendea animatzea da, argazkiak sortzea, egitea. Hori ere egiten dugu».

Erakusketa honetara jendea joaten ari dela ere esan dute: «helduek, Alegiko lehenagoko ikuspegia badakite nolakoa zen, eta baita oraingoa ere. Horregatik, uste genuen gehiago apreziatuko zutela, baina gazteei ere asko gustatu zaie».

Herriko irudi gehiago

Hurrengo proiektua «herriko eguneroko bizitzan egiten diren gauza eta momentu arruntak harrapatzea» izango da; baina, «gaur egungoak izango dira: dagoeneko hasi gara, txikitean, dendetan edo garajetan dagoen jendeari ateratzen. Balore estetikoak baino afektiboa izango dutenak izango dira».

Kontua da, irudiak direla hiri baten bizimodua eta jendea deskribatzen dituenak, bai lehen eta baita orain ere.

ORENDAIN ▶ AGENDA 21

Bozue 21ekin lotutako batzarra egingo dute

Herria hobetzeko aukerez hitz egingo dute

ERREDAKZIOA

Bihar, 16:30ean herri batzar bat egingo dute Orendaingo udaletxean, Udalak deituta. Agenda 21 prozesua dela-eta osatu den diagnostikoaren lehen zirriborroa aurkeztu eta herritar guztien artean atzerman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatuko dira.

Diagnostiko horretan biztanleria, etxebizitzak, zerbitzuak, ekonomia edo ingurumena landu dira; baita elkarrikeria bidez lortutako

herritarren iritziak ere. Diagnostikoa erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Gainera, herrirako etorkizunerako plangintza definitu nahi denez, oso garrantzitsua da «herritar guzti-guztiek parte hartzea». Beraz, herria hobetu nahi duenak, gerturatu besterik ez du.

Diagnostikoa irakurtzeko, www.tolomendi.net/agenda21 web orrialdean edota, Orendaingo udaletxean dago aukera.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiazen Beotibarko partidak

Gaur, Beotibarren Aurrera-Saiazek partida jokatu du 21:00etan. Senior lehen mailako norgehiagokan bikotea Añorgakoekin ariko da. Bihar, 10:00etan, kadete mailakoa Hernanikoaren kontra izango da. Ondoren, jubentzena eta azkenik senior lehen mailako bikotea Zazpi-Iturrikoen kontra.

BALIARRAIN ▶

Hitzaldia gaur, eta umeentzako tailerra bihar

Gaur, 19:30ean, udaletxeko kultur gelan Josu Jauregirekin bilduko dira, *geobiologia eta etxebizitza naturalaz* hitz egiteko. Bihar, 17:00etan haur eta gaztetxoentzako tailerra izango da: musu margoketa eta ileapaindegia, hain zuzen.

ALEGIA ▶

Bihar, etxean, lurraldekakoena eta jubentzena

Intxurre futbol areto taldeko neskek Idiazabalen jokatu dute bihar, 16:00etan. Lurraldekakoek Urnietakoek kontra izango dute norgehiagokan 15:30ean, Alegian. Jubentzen Tolosa izango dute arerio, Alegian bertan, goizean, 11:30ean. Azkenik, kadeteak Beasainen jokatu dute 10:00etan.

ALEGIA ▶

Azaro Kulturaleko txotxongilo emanaldia, gaur

Solidaritate aldarrikatzen duen *Eman eta gero* txotxongilo emanaldia izango da gaur, 17:30ean, Kultur Etxean. Kutxak sustatu eta finantziatutakoa da. Diapositibekin, kutxa eta beste ezusteko batzuekin, gure hainbat kezak mintzo da lan hau.



BERASTEGI ▶ KULTURA

Aukera zabalarekin dator aurtengo Kultur Astea

Txomin Jakakortexarena izango da protagonista nagusietako bat, bere bizitzaren inguruko hitzaldia, erakusketa eta liburuen aurkezpena egingo baitira

MADDI SOROA

Gaur hasiko da 2006ko Berastegiko Kultur Astea. Urtero legez, ekitaldi andana antolatuta dituzte adin eta gustu guztietako herritarrentzat. Film emanaldia, ipuin kontaketa, mus eta futbol txapelketak, gazta lehiaketa, Berastegiko produktu eta eskulanean azoka edota antzerki emanaldia, besteak beste.

Aurtengo Kultur Asteak protagonista nagusi bat izango duela esan daiteke, apaiz euskaltzale eta abertzale sutsu izandako Txomin Jakakortexarena, alegia. Izan ere, bere bizitzari buruzko erakusketaren inaugurazio izango da gaur 21:00etan Baztarretxen. Era berean, Xabier Kintanak Jakakortexarenaren bizia eta afizioei buruzko hitzaldia eskainiko du. Bestalde, igandean, apaiz euskaltzalearen inguruko bi liburuen aurkezpena egingo dute 11:00etan udaletxean. Aurretik, ordea, pleno herrikoi berezia burutuko dute. Helburua, herriko kale bati Jakakortexarenaren izena ematea, hain zuzen ere.

Gogoratu, honako hauek dira Kultur Astea posible egiten duten taldeak: Aldin Kirol eta Kultur elkarteak, Basurde elkarteak, Berastegiko Udala, Muñagorri Guraso elkarteak, Muñagorri Herri Ikastetxea eta Urepele elkarteak.



lazio Kultur Astean ospatu zen azokan garaila atera postuko irudia. HITZA

EGITARAUA ▶

GAUR

21:00. Txomin Jakakortexarenari buruzko erkustaldiaren inaugurazioa eta bere bizi eta afizioei buruzko hitzaldia Xabier Kintanaren eskutik.

BIHAR

16:00. Haurrentzako *Ice Age II* film emanaldia erabilpen anitzeko gelan. Ondoren, txokolatada Urepele Elkarteak.
17:00-19:00. Txomin Jakakortexarenari buruzko erakusketa Baztarretxen.
18:30. Urepele Elkarteak futbol-txapelketako finalak frontoian.
21:30. Angel Cuedoren

eskutik *Mongolia zaldiz* ikusentzutekoa eskolako gimnasioan.

ETZI, IGANDEA

11:00. Pleno berezi herrikoia udaletxean Txomin Jakakortexarenaren izena kale bati emateko erabakia hartzeko eta bi liburuen aurkezpena egiteko: Xabier Kintanaren *Txomin Jakakortexarena (1906-1993)*. *Bidegileak*, eta Mikel Abxagak prestatutako *Txomin Jakakortexarena. Bertso eta Olerkiak*.
12:00. San Martin elizan meza eta ondoren Txomin Jakakortexarenaren hilobira bisita.
14:00. Herri bazkaria Ategin. Txartelak, alde aurretik erosi beharko dira Gaztainondon.

17:00-19:00. Txomin Jakakortexarenari buruzko erakusketa Baztarretxen.

AZAROAK 17, OSTIRALA

16:30. Idoia Sanchez ipuin-kontalariaren emanaldia erabilpen anitzeko gelan, Galtzaundi Euskara taldeak antolatuta.
18:00. Eriz Magoaren magia ikuskizunaz gozatzeko aukera eskolako gimnasioan.
21:30. *Nora doa ero hori* antzezlan eskolako jangelan Sapocochon taldearen eskutik.

AZAROAK 18, LARUNBATA

15:30. Herriko mus txapelketa azkarra Basurde Elkarteak.
16:00. Haurrentzako filma erabilpen anitzeko gelan.
22:00. Helduentzako euskal filma erabilpen anitzeko gelan.

AZAROAK 19, IGANDEA

11:00. Gazta lehiaketa eta Berastegiko produktu eta eskulanean eskuragai frontoian egingo den azokan.
12:30. Gazta, postu eta argazki rallyko irabazleen sari banaketa.
18:00. Gazta lehiaketan parte hartu duten gazten dastaketa taloa, ardoa eta sagardoak lagunduta.

IBARRA ▶

I. Ibarra Motor Rock jaialdia ospatuko dute biharkoan

M. SOROA

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkartek I. Ibarra Motor Rock jaialdia antolatuta du bihar. 16:00etan elkartuko dira motozaleak plazan ondoren inguruko herrietatik bira bat emateko. Itzulia eta gero afari legea egingo dute Xepia elkarteak, 20:30ean. Iluntzean, Silikonay, Mutuo Desprecio eta Agoraphobia taldeen kontzertua izango da Gaztetxean 22:30ak aldera.

GUTUN@K ▶

Elkartasunari eskerrak


Pasa den hilaren 28an Ibarra antolatuta guenen Presoan aldeko 2. Elkartasun Egunean parte hartu eta Ibarra hurbildu zineten guztioi, esker mila!

Egun, Ibarra preso diren Eider, Ekaitz, Minde, Maite eta gainontzeko erreprelarietuen lagun taldeak, beren eta eskualdeko presoan aldeko 2. Elkartasun Eguna antolatuta guenen. Pertsonak izaki, zor zaien eskubide soil eta simplea exijitu nahi izan guenen egun horretan, ozen gainera. Eta, nola ez, preso politiko diren heinean, bizitzaren ari garen fase itzaropentsu honetan, bere bizitzaren hainbat eta hainbat urte borrokari eskaintzen ari diren gizakiei parte hartzeko eskubidea aldarrikatu nahi izan dugu. Ezin ahanzi, bide batez, aste honetan bertan, Curtis-eko (Galiza) espetxean bakarturik gelditu den Eider Ijurko-eren kasua.

Bukatzeko, eskerrik beroena Ibarra elkarteei, herriko hainbat merkatari eta nekazarien laguntzaz, eskaini ziguten bazkari eta giro honagatik, baita Ibarra Gazte Asanblada, Ibarra Udala, Ibarra Dantzariak, Herri Kirol Taldea... eta antolatuta ziren ekintza guztietan parte hartu eta egun atsegingarri bat igarotzen lagundu zuten orori, ezin aipatu gabe utzi eskualdeko komunikabideak (Hitza eta Txolarre Irratia) eskaini duten informazioa eta balagatik. Esker mila guztioi!

IZARO CALVANO ETA JON

IJURKO ▶ IBARRARA HERRI EKIMENA



Salgai (Tolosa) Iurramendi auzoan etxe zoragarria. Aparta.
Salgai (Tolosa) Aparta. Gernikako arbolan. 93m2. Garaiea aukeran.
Salgai (Tolosa) Korreo kalean 75m2. Eraberritua. Bizitzera sartzeko prest.
Salgai (Tolosa) K/Nagusian 50m2-ko atikoa. Eraberritua.
Salgai (Tolosa) Letxuga kalean 50m2. Estreinatzeko.
Salgai (Araun) San Martin. 60m2. Eraberritua estreinatzeko.
Salgai (Ibarra) 90m2. Eraberritua estreinatzeko.
Salgai (Calahorra) Etxea 123.808 eurotan.
Salgai (Ibarra) Hainbat baserri.
Salgai (Tolosa) Gernikako arbolan lokal komertziala 25m2.
Salgai (Tolosa) Korreo kalean lokal komertziala. 103m2.
943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

NC Nekane Caballero
Lda Col 3429

■ Aholkularitza juridikoa:
zibil, penal eta administratiboa
■ Higiezinaren zerbitzuak

Andia kalea, 1 • 1C • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 82 82

KONTSU TABERNA

Asteburuko menua
Plater konbinatuak
Astearteak ibitza
Orexa • 943 68 21 54

iragarki laburrak ▶

LANA

Osakidetzan. Laborategirako teknikoak, mantentze langileak, zaintzaileak, administrari laguntzaileak behar dira.
943 31 37 82.

Gidariak. Lanpostu finkoak libre. Lanaldi jarraitua.
943 31 37 82.

LEITZA ▶ POLITIKA

Ongietorri beroa Igor Astibiarentzat

Jende asko zain zegoen herriko plazara 00:30ak aldera iritsi zenean

NAIARA GARZIA

Igor Astibia Telletxea leitzarra dagoeneko etxean da, ia 2 urte kartzelan eman ondoren. Herenegun arratsaldeko 18:30 aldera utzi zuten libre, eta herrira goizeko 00:30 aldera iritsi zen.

Arratsaldeko batzarrean 23:30etarako egin zuten deialdia, autoetan Aresoko kruzera joan eta bertatik auto ilaran etortzeko. Suziri batek dagoeneko herrian zeneko abisua eman zuen, eta gauaren intimitatean iritsi zen Igor Astibia bere senitartekoekin herriko plazara, txalapartak bere etorrera ospatzen zuen bitartean. Hiru dantzariak aureskua eskeini zioten, ongi-etorria emateko, eta gero, lore-sorta eman zioten. Igor Astibia eta bere anaia Eneko elkarren ondoan zirela, lehenengoak eskerrak eman zituen. Amaitu ondoren Torrearen txanda zen, izan ere, bertan Igor preso politikoa bezala azaltzen zen argazkia berak kendu zuen. Jendearen arrera oso beroa izandu zen, eta gauaren epeltasunak ere zerikusirik izan zuen.

Igor Astibiaren fidantza dirua ordaintzeko kontu-korronteari dagokionez, atzo bere fa-

miliak ireki zuela esan genuen, baina akatsa zuzendu nahi dugu, Leitzako Presoen Aldeko Taldea izan baita Euskadiko Kutxan kontu korrontea zabaldu duena. Hori bai, zenbakia atzo eman genuen berbera da: 3035 0118 841181027855.

Deialdi pare bat

Ezker abertzaleak deialdi pare bat egin ditu gaurko eta bihar. «Indarrak bilduz, prozesua aurrera!» lemapean, beraien nahia azaldu dute «alde batetik historikoa den momentu honi bultzada ematea eta beste aldetik prozesuari irtenbiderik ematen ez dioten irteera faltsuei atea ixtea». Helburu honekin, beraz, gaurko deialdia egin dute, gaueko 21:00-21:15 aldera itzalaldia eta burrunbada handi bat egiteko, hau da, etxeko argiak itzali eta kazerolada handi bat egiteko. Bestetik, bihar, Bilbon «Euskal Herriak Autodeterminazioa» lelopean ospatuko den nazio manifestaldira jendea joateko deialdia egin du ezker abertzaleak. Leitzatik autobusak aterako dira, eta joan nahi duenak Torrean izena eman besterik ez du egin behar.



Bi urte. 2004ko azaroan abilo hartu zuten zuzenez geroztik herrian bere egoera salatzen hainbat manifestaldi egin dira, eta osoko azkeneko bilkuran ere, udalak bere aldeko mozioa onartu zuen aho batez. Argazkian, 6 hilabete kartzelan egin zituenean egindako bilkura. N. GARZIA



Aureskua. Txalaparta hotsak ongi-etorria eman ondoren, aureskua eskaini zioten Igor Astibari. N. GARZIA



Jendea. 20:00etan batzarra egin zen herriko plazan, gutxi gora behera Igor Astibia noiz iritsiko zen jakinarazteko. Asteko eguna izan arren, jende ugari bildu zen ongi-etorria ematera. 00:30 aldera suziri batek herrira iritsia zela jakinarazi zuen. N. GARZIA

LEITZA ▶ ZINEMA

Jean Marc Vallee-ren CRAZY filma, azaroko zinemaldiaren azkenekoa

Familia guztiari zuzenduta dago, gai korapilatsuak jorratu arren

N. GARZIA

Gaur Leitzako zinemaldiaren azkeneko filma izanen da ikusgai gaueko 21:30ean. CRAZY izeneko filma. Filma berriro igandean botako dute, azken hiru aseturuetan egin den bezala, arratsaldeko 19:00etan.

CRAZY filmeak 60 eta 70. hamarkadara barreiatzen gaitu. Quebec-en garai hartan bizi zuten errealitate. Berez fami-

lia osoarentzat egina dagoen filma da, gai korapilatsu batzuk jorrotzen dituen arren. Komedia musikala bailitzan, musika ederra eta hain urrun ez dagoen garai hori isladatzeko indarra dira, beharbada eta kritikaren ustez, film honen dohain nagusiak. Bertan ume baten istorioa azaltzen da, ume izatetik heldu arte ematen dituen urratsak. Familia arras katoliko baten heziketa da protagonista,

eta honen ondorioz bere burua heterosexual izatera behartuko du, bere aita zorrotzaren maitasuna ez galtzeko.

Kritikaren ustez, filmaren alderik txarrena iraupena da, luze xamarra baita. Bestalde, Jean-Marc Vallee zuzendari frantsesak zuzendutako filme honetan zuzendariak istorioak kontatzeko ikaragarriko indarra erakusten du. Katolizismoaren oihartzuna erabatekoa

izanen da filmean zehar, bere 4 anaia bezala izan nahi duen ume honen istorioa kontatzen duten bitartean. Baina pelikula aurrera doan heinean, elementu erlijiosoak aldatzen doaz, eta azkenean, surrealista xamarra bihurtzen dira.

Hau Jean Marc Valleeek zuzendari frantsesak zuzentzen duen hirugarren filma da, 1997. urtean ondorengo bi pelikulak zuzendu ondoren: *Fede-ukatzaleak II:eroak* eta *Eroak*.

Zinema gehiago gaztetxean

Bestalde, zinema zaleak hila-bete bukaerara arte pelikula gehiago ikusteko aukera izanen dute herriko gaztetxean,

ostegunero, iluntzetan, 20:00etan filme bat botako baitute. Atzo, bertara hurbildu zirenak *Hotel Ruanda* (Terry George, 2005) ikusteko aukera izan zuen. Hurrengo ostegunean, azaroaren 16an *Thirteen* filma botako dute (Catherine Hardwicke zuzendariarena, 2003. urtean). Azaroaren 18an, berriz, Achero Mafiasek zuzendutako lehenengo luzemetraia, *Noviembre* (2002). Eta zinemaldiari amaiera emateko, Jim Sheridanek zuzendutako filme irlandarra eskeiniko dute, estreinatutako zenean arrakasta ikaragarria izan zuena, *En el nombre del padre* (1993).

Pelikula kritikoak gustuko dituztenek, beraz, gozatzeko aukera paregabea izango dute.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Baliarrain. Kultur Astearen baitan, 19:30ean udaletxeko kultur gelan hitzaldi bat izango da: *Geobiologia eta ebekibizitza naturala* da jorratuko duten gaia Josu Jauregiren eskutik.
Tolosa. Fernando Bernues zuzendariaren *Nasdrovia Chejov* antzerki emanaldia Leidor Aretoan, 22:30ean.
Tolosa. 20:00etan, Kultur Etxean, *Lagunduta ez dauden adin txikio atzeritarrak. Gure adin txikioak ere badira?* hitzaldia. Joxe Elizondo izango da moderatzailea eta hizlari lanetan, Vicenç Galea i Montero, Diego Lorente eta Peio Aierbe ariko dira.

ERAKUSKETAK

Alegia. Azaro Kulturala antolatu dute hil honetan Kultur Etxean, ekitaldiz beteriko egitarauarekin. Eta honen baitan, hilaren 13ra bitarte argazki erakusketa bat izango da: *Alegia lehen eta orain*, Alegiko argazki taldeak bildu dituen argazkiak dira.
Alegia. Pilarboto Elosegi egilearen margolanak ikusgai izango dira, jubilatuen tabernan, hil honetan hasi eta abenduaren 10era arte.
Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* izeneko erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatebean azaroaren 17ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Xtolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza*.
20:00-21:00. *Asteko onena*.
21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Gipuzkoako ardatza»

TOLOSA ▶ 'Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketak eta ondorioak I. Beasain-Irun' liburua aurkeztu zuten herenegun Tolosako udaletxean



Ezker-eskuin: Juanboto Agirre, Juanjo Olaizola, Pello Jose Aranburu eta Luis Mari Intza, herenegun, aurkezpenean. MARTA SAN SEBASTIAN

ERREDAKZIOA

Bost urteko lanaren ostean argia ikusi du ello Joxe Aranburu alkizarra-aren azken proiektuak: *Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketak eta ondorioak I. Beasain-Irun*. Luis Mari Intza berrobitarraren laguntza ere jaso du eta herenegun aurkeztu zuten bi egileek euren lana, Tolosako udaletxean, Aranzadiko Juanboto Agirre eta tren museo-ko zuzendari Juanjo Olaizola ere bertan zirela.
Oñatiko artxibo probintzialean Alkizari buruzko paper batzuen bila ari zela trenbideari buruzko fakturak eta berriak

topatu zituenean otu zitzaion idazleari gai hau jorratzea. «Gaiari buruz ikertzen hasi eta berehala konturatu nintzen hasieran uste baino lan mardulagoa eta garrantzitsuagoaren aurrean nengoela: XIX. mendeko eraikuntza garrantzitsuena, industrializazioa eta demografian iraultza ekarriko zuena», azaldu zuen Aranburuk aurkezpenean. Izan ere, trenbidearen eraikuntzak Gipuzkoa eraldatu zuen XIX. mendean Tolosa bigarren mailan utziz. Aranburu aritu da Alcalá de Henares, Oñati eta Tolosako artxiboetan ikertzen.
Juanboto Agirrek liburua eramaniamia goraiatu zuen aurkez-

penean eta «Aranburuk beti ere, datu zuzenak ematen dituela eta bere liburua oso zehatzak direla» azaldu zuen. Liburu honetan informazio iturria beti azaltzen dela eta, aztertzaile batentzat «oso baliagarria» izan daitekeela esan zuen Aranzadikoak. Une politikoa ere gogora ekarri zuen Agirrek, «orain garrantzitsua baita atzera begiratzeko eta gure arbasoek zer egin zuten ikusteko».
Trenari buruzko lehen lana
Juanjo Olaizolak hartu zuen hitza ondoren, eta aurkezpena Tolosan izatearen garrantzia

aipatu zuen. «Arrazoi asko dago horretarako, gai honi buruz Tolosan dagoelako materialik gehiena, bai udal artxiboan, baita artxibo orokorran ere». Norteko trenaren garrantzia ere azaldu zuen tren museo-ko zuzendariak eta oraindik aztertu gabe zegoenez, «egoki» iruditzi zaio honi buruzko liburua.
Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketak eta ondorioak I. Beasain-Irun liburua 610 orrialde ditu, 42 argazkirekin, eta CD bat planoekin. 10 euroren truke eros daiteke dendetan. Egileek arrakastatsua izatea espero dute eta batik batik «baliagarri».

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa